

Etorkizuneko hezitzailea?



Ikasle Kaiera



Inge Axpe


Arantzazu Rodríguez

Estíbaliz Ramos

AURKIBIDEA

1. PROIEKTUAREN AURKEZPENA	3
Proiektua	3
Nola lortu?	4
Nola antolatu?	4
Hasiera	4
2. GALDERA eta ESZENATOKIA	5
Banaka egiteko	6
Proiektuaren jarraipena eta pausuak	7
Proiektuaren etapak eta datak (taula)	8
3. PROIEKTUAREN FASEAK	10
3.1. Proiektuaren Lehenengo Fasea	10
Lehenengo gela saioa	10
Bigarren gela saioa	12
Hirugarren gela saioa	13
Laugarren gela saioa	17
3.2. Proiektuaren Bigarren Fasea	19
3.2.1. Txostenaren ahozko aurkezpena:	
Bigarren mintegi asterako	19
3.2.2. Ikus-entzuneko hezitzailea eta bere diptikoa:	
Hirugarren mintegi asterako	21
Bosgarren gela saioa: Lehenengo Mintegi astea	22
Seigarren gela saioa: Bigarren Mintegi astea	25
Zazpigarren gela saioa: Hirugarren Mintegi astea	27
4. EMATEKOAK, DATAK eta KALIFIKAZIOAK	29
5. ERANSKINAK	30
Taldeko Fitxa	30
Taldeko Akta	32

IKASLE KAIERA



Ez dago klikatzeko ikonarik, klariona erabili behar bat

1. PROIEKTUAREN AURKEZPENEA

PROIEKTUA

Koaderno honetan Hezkuntzaren Psikologia irakasgaiari aurrera eramanez nahi den proiektuaren zehaztapenak aurkituko dituzu. Beraz proiektu horren gida moduan hartu daiteke. Proiektua amaitzean hurrengo galderari erantzuna emateko moduan egotea espero da:



**ETORKIZUNEKO HEZITZAILE PUTA ETA
BOLLEROA?**

ESPERO DENA

Planteatu den galdera ez da erraz erantzuteko modukoa, baina etorkizuneko hezitzailea izango zaren heinean, norbere eta kideen estereotipo eta aurreiritzien inguruan hausnartzea ezinbestekotzat jotzen da. Azken finean estereotipoek aurreiritziak sor ditzakete, eta aurreiritziek diskriminazioa eta bazterketa erraztu dezakete. Beraz, proiektu honetan estereotipo, aurreiritzi eta diskriminazioari buruzko hausnarketa ez ezik, hori gutxitzeko egin daitekeenari buruz pentsarazi nahi da, etorkizuneko hezitzaile moduan, inguruko kideak hezi ditzaten proposamenak sortuz.

Hortaz, proiektuaren amaieran ondorengo lortzea espero da:


- Hezkuntzaren psikologiaren eduki eta teoretan oinarrituta, estereotipo eta jarrera sexista eta baztertzaileren sorrera eta barneraketa ulertzeko eta azaltzeko gai izatea
- Sexismoa adierazten duten egoerak identifikatzea
- Estereotipo eta jarrera sexistek izan ditzaketen ondorioen inguruan hausnartzea
- Hausnarketa kritikoa piztu dezaketen proposamenak sortzea

NOLA LORTU?



Proiektua ikaskideekin batera burutuko duzu. Beraz, **TALDE LANA EZINBESTEKO**A izango da.

Hala ere, taldearen funtzionamendu egokirako, **KIDE BAKOITZ**Aren esfortzua, lana eta konpromisoa nahitaezkoa izango dira.



Proiektu honen bidez pertsonok nola ikasten dugun aztertu beharko duzue, eta ikasketa horrek banakoengan zein gizartean izan dezakeen ondorio kaltegarrien inguruan hausnartuko duzue, horiek saihesteko erabil daitezkeen aukerak aztertuz.

Beraz, proiektuan arazo hauen inguruko **azterketa kritikoa adierazteko era formalean** eta akademikoan trebatu ez ezik (txosten formal baten bidez), **esku-hartzeko proposamen hezitzaile eta ez formalak sortuko** dituzue, azken horiek zuen kideen artean (gelakideen artean, baina baita eskolakide eta eskolatik kanpoko gazteen artean ere) zabaltzeko aukera izanaz.

NOLA ANTOLATU?

Proiektuak gelako eta **gelatik kanpoko lana** suposatuko du, beraz, azken hau **errazteko, MDJ**rako egindako taldeak mantenduko dituzue.

HASIERA

Proiektuari hasiera emateko, ondorengo orrian eskaintzen den **galdera eta eszenatokia irakurri** beharko duzu **banaka** eta **gelatik at**. Irakurri **ondoren**, banakako lana egiteko eskatuko zaizu: galdera batzuei erantzun beharko diezu eta informazio zehatz baten bilaketa eta sintesia egin beharko duzu. **Ezinbestekoa izango da banakako lan hori** egitea, ondorengo gelako saioan erabiliko baitugu.



AURRERA BA!!

2. GALDERA eta ESZENATOKIA

ETORKIZUNEKO HEZITZAILER PUTA ETA BOLLEROA?

Astelehena da. Unibertsitatean zaude, eta atsedena hartzeko garaia heldu da. Eraikineko beheko solairuan dagoen kafe eta bending-eko makinak dauden gelara abiatu zara gelako kide batzuekin. Bertan kafe makinaren ilaran itxaroten zaudela, hurrengo entzun diozu aurrekoei:



- *Bai, bai!! Puta halakoa!! Jokin-ekin egon zen larunbatean!!*
- *Beno, baina Jokinek ezetz esan abal zuen, ez? Txortan egiteko bi behar dira gutxienez!*
- *Beno baina zer espero duzu? Mutil batek horrelako ankerari ezetza ematea? Noelia aldi... zorra halakoa!! Gainera Eliasekin zegoen!*
- *Beno... zuk esan duzu, zegoen! Ze orain dela aste batzuk moztu zuten! Eta moztu zutenetik larunbatero kristoren mozkorrak hartzen zituen, auskalo nola egongo zen oraingoan ere... Ze Eliasekin moztu ondoren Noelia oso minduta zegoen! "Es que"... Halakoa, Badakizu zer esan zigun?? Eliasek adarrak jarri dizkiola!*
- *Baina...? Zein mundutan bizirik zara?! Ez zenekien ezer? Ez zara enteratu? Elias kazetaritza ikasten duen batekin "liatuta" zebilen, baina aspalditik! Eta azkenean kazetaritzako neska dena jarri zuen Facebooken. Ez zenuen ikusi? Eliasek pasatako argazki batzuk moldatu zituen gainera, eta zelakoak! "En plan": Elias eta Noelia argazki batean eta Noelia super irribarretsu photo-shopez marraztutako adar luze batzuekin; eta horrelako komentarioak: "Bolloak eta tortillak gustoko badituzu, utzi Elias bakean!"... Ze antza Eliasek esandakoagatik... "Le ha dado a toda la tia!"... Halakorik!!*
- *Benetan??*
- *Bai. Baina, bah! Izorra dadila, begira orain zelan dabilen, edozein mutil berotzen! Merezita dauka, ez zen Jokinekin joan behar!*

Elkarrizketa hori mantentzen ari direnak haien kafea hartu eta joan direnean, gelakide batek zure burutazioetatik atera zaitu:

- *Eh, zer? Lokartuta? Ez duzu kaferik hartuko hala? Badirudi beharke duzula!!*
- *Bai, bai, banoa... Aizu, ikusi dituzu aurrean zendenak? Zer egongo dira ikasten?*
- *Horiek? Uste dut irakasle-eskolako lehenengo mailakoak direla, ze haien gelakide bat laugarren mailako Eliasekin ikusita daukat, behintzat ikasturte hasieran enrollatuta zenden.*
- *Etorkizuneko irakasle eta hezitzaileak izango dira orduan??!!*
- *Bai... zer berritu egiten zaitu ala?*

BANAKA EGITEKO

1. Jo e-gelara eta bertan agertuko zaizun galdetegiari **on-line** erantzun. Ondoren, jarraitu lan egiten koaderno honetan eskatzen diren jarduerekin.
2. Hurrengo galderei **idatziz erantzun** eta ziurtatu zaitez erantzunak hurrengo gela saiora eramango dituzula



- 2.1. Zein iritzi duzu Noeliaren inguruan?
- 2.2. Eszenatokia irakurri ostean, zer uste duzu? Ba al dago zertaz harritu? Zer izan daiteke harritzekoa eta zergatik?
- 2.3. Harritzekoa den hori, aldatu beharko litzateke? Aldatu daiteke?
- 2.4. Kontuan izanda etorkizuneko hezitzailea izango zarela, aldatu beharreko hori aldatzen laguntzeko zerbait egin zenezake? Zer?

3. Ondoren eskatuko zaizun lana egin, emaitzak (laburpena edo sintesia) **idatziz jaso** eta ziurtatu zaitez hurrengo gela saiora eramango duzula, horrekin lan egiteko.
 - 3.1. Zure ustez, eskolan entzundako elkarrizketan kontatu den egoera, ohikoa al da?
 - 3.2. Zure ustez, zein da gaur egungo nerabe eta gazteen ikuspegia harreman afektibosexualen inguruan?
 - 3.3. Kontrasta ezazu zure uste hori erakunde ofizial batek jasotako datuekin. Horretarako, bilatu azken 3 urteetan argitaratutako ikerketaren bat horren inguruan. Bilaketa egiteko, ondorengo irizpideak jarraitu:
 - Ikerketa ofiziala izan behar da (erakunde ofizial batek egindakoa: estatuak, unibertsitate batek, azterketa estatistikoak egiten dituen erakunde batek...).
 - Ikerketan aurkezten diren datuak “berriak” izan behar dira gehienez azken 5 urteetakoak

Irizpide bi horiek betetzen dituen ikerketa bat (adibidez ikerketa estadistikoa, artikulu zientifiko, ikerketa baten prentsarako prestatutako txosten laburtua...) **behin topatuta, horren datu adierazgarrienak sintetizatu** (laburtu) sintesiaren amaieran iturriaren aipu bibliografiko zuzena eginez (APA arauen 6.edizioa jarraituz). Aipua edo erreferentzia bibliografikoa egiteko, APA arauen laburpen bi irakasgai honen e-gelan topa ditzakezu.



Ikusteko interesgarriak

www.youtube.com/watch?v=Co_z_GbjbHY

11 feb. 2015 - eldiarioes

www.youtube.com/watch?v=-oLWb0021P8

31 may. 2015 - Maria Caballero

PROIEKTUAREN JARRAIPENA eta PAUSUAK

Beno, ba oso ondo, proiektuaren atarian gaude!

Hasierako “beroketa” lana eginda, proiektuaren lehenengo fasean bete betean sartzeko unea heldu da. Lehenengo fasea diot proiektuak bi fase izango dituelako, bakoitza bere “produktu” edo “emateko” zehatzekin. Hona hemen plangintza:

1. Fasea: Diagnostikoa eta Ulermena

Fase honetan ematekoa bakarria izango da:

- 1.1. **Txosten idatzi bat** egungo egoeraren azterketa kritikoa eginez eta esku-hartzearen beharra dagoen edo ez adieraziaz: *estereotipo, aurreiritzi edo/eta diskriminaziorik ba al dago?*



2. Fasea: Esku-hartzea. Kontzientziatzea eta kideak heztea


Fase honetan emateko bi egongo dira:


- 2.1. Txosten idatziaren **ahozko aurkezpena**: egungo egoera zein den (zuen azterketaren emaitza) kideei azalduko diezue: gelako kideei mintegi saio batean, eta, prest egonez gero, baita eskolako beste ikasleei ere, Martxoaren 8ko jardunaldietan.
- 2.2. **Ikus entzunekoa** eta bere **azalpenaren diptikoa**: zuen azterketaren emaitzak ikusita, egungo egoera “ona” bada, mantentzeko, eta “desegokia” bada, aldatzen saiatzeko balioko duen ikus-entzunekoa sortuko duzue, bideo horren helburu eta oinarrian dauden estrategiak azalduko dituen **driptiko batekin** batera. Bideo horrek gazteen artean zabaltzeko eta egitasmo ezberdin aurkezteko dituen aukerak aztertuko dira.



Laburbiltzeko, proiektuaren bidez lortu nahi dena ondorengoa da:

- Egungo **egoeraren azterketa** eta **egoera horren ulermena** (teoriarekin lotzea, justifikatzea eta argudiatzea)
- Egoera behin aztertuta, horretara egokitzen den **esku-hartze proposamena** egitea. Esku-hartze mugatua litzateke, baina bere helburua heztea eta hausnarketa kritikoa bultzatzea izan beharko litzateke.





Fase bietan zuen ezagutza eta esperientziak aberasgarria suertatzea nahi da, baina gauza guztiekin bezala, denboraren muga dugu, beraz, aldeztatik baliabide garrantzitsu hori ahalik eta ondoen kudeatzeko, proiektuaren fase bietan burutu beharreko etapak zehaztuko dira.

DATA	Gela saioa	Gelatik at
Lehenengo astea		Banakakoa: Eszenarioaren irakurketa, galderi erantzutea, bilaketa eta sintesi lanak
Bigarren astea	Gela saioa: talde txikietan lana	Banakako lana gelatik at Irakurketa eta sintesi lanak
Hirugarren astea	Gela saioa: puzzle eta kontzeptuzko mapak Bi talde txikien aurkezpena Aztertu beharreko komunikabideen arloak mintegika zehaztu Taldeen banakako lana antolatu	Banakako lana gelatik at Komunikabide baten elementu bateko azterketa kritikoa egin orain arte kontsultatutako iturriak kontuan hartuz eta horiekin lotuz
Laugarren astea	Gela saioa: talde txikietan elkarren lana zuzendu Txosten akademikoaren atalak zehaztu eta hori egiteko lana taldekideen artean banatu	Banakako lana gelatik at Egokitutako txosten atalaz arduratu
Bostgarren astea	Gela saioa: talde txikietan txostenerako egindako lana elkarri zuzendu Gelatik at egin beharreko lana (lanerako plana) antolatu: Txostenaren tarteko entrega: lehenengo mintegi aste ondoren Txostenaren amaierako entrega (zuzenketekin): lauhilabetearen amaieran	Banakako lana gelatik at Lehenengo mintegirako egokitutako irakurketa egin eta sintetizatu Taldeko lana gelatik at Txostena bukatu Ikus-entzunezkoaren prestaketa hasi
Lehenengo mintegi astea	LEHENENGO MINTEGI astea: Talde txikietan lana: ikus-entzunezko prestatzeko kontuan hartu beharrekoak	Taldeko lana gelatik at Txostena bukatu Komunikabideen azterketaren ahozko aurkezpena prestatu (Bigarren mintegirako)
	Txostenaren tarteko entrega eta Ikus-entzunezkoaren zirriborro idatzia	Taldeko lana gelatik at Komunikabideen azterketaren ahozko aurkezpena prestatu (Bigarren mintegirako)
Bigarren mintegi astea	BIGARREN MINTEGI astea: Komunikabideen azterketaren ahozko aurkezpena	Taldeko lana gelatik at Txostenaren zuzenketak egin Ikus-entzunezkoa eta diptikoa prestatu (3. mintegirako)
Hirugarren mintegi astea	HIRUGARREN MINTEGI astea: Ikus-entzunezkoen ahozko aurkezpena Diptikoaren entrega	

Adi orduan!

“Banakako” beroketa eginda, lehengo gela saiora iritsiko baikara.



**Lanerako
prest?
Has gaitzen!**



3. PROIEKTUAREN FASEAK

Bidea hasteko, lehenengo faseak hasi behar. Ekin diezaiogun!

3. 1. PROIEKTUAREN LEHENGO FASEA: Azterketa-diagnosia. Egoeraren ulermena

Proiektuarekin gelatik at lan egiten hasi zara, eszenatokia irakurriz, galdera batzuei erantzunez eta gaur egungo gazteen egoera zein den aztertuz.

Orain, banakako lan hori beste kideekin alderatzeko momentua heldu da.

Ekin diezaiogun!

Lehenengo gela saioa. Iritziak eta datuak konpartitzen




Hezitzaileok diskriminazioa eta menpekotasun egoerak bultzatzen ditugu?

Saio honetan ez ditugu MDJko taldeak erabiliko:

1. MDJkoak ez diren kideekin bilduko zarete, **bost kideetako talde txikiak** sortuz.
 - a. Taldearen rola banatu:
 - Ordezkar bat,
 - Idazkar bat
 - Denbora neurtzaile bat
 - Galdera egile bi: kide guztien iritziak entzuten direla eta justifikazioak eskaintzen direla ziurtatzeko.
 - b. Galderen erantzunak komunean jarri eta sintetizatu (txukun)
 - c. Bilatutako txostenen emaitzak komunean jarri eta sintetizatu, zein iturri kontsultatu diren argi aipatuz.
 - d. Egindako **aldez aurretiko banakako lana zein taldean egindakoa irakasleari entregatuko** zaio

2. Saioa ixteko talde handiko lana egingo da, proiektuaren nondik norakoak zehaztuko dira eta **hurrengo saiorako** banaka eta gelatik at egin beharreko **lana** zehaztuko da
 - **Taldea gelatik at egin beharreko lana**
 - A) **TALDEKO FITXA** bete (koaderno honen **eranskinetan** agertzen dena) eta **irakasleari helarazi**

 - **Banaka gelatik at egin beharreko lana**
 - A) Erantzun on-line e-gelan eskainiko zaizun galdetegi berriari.
 - B) MDJko taldeetan adostu den banaketari jarraituz, **norberari egokitu zaion irakurketa** edo bilaketa egin eta **idei nagusienak** idatziz jaso, hurrengo egunean **kideei horien berri emateko**
 - C) **Idei nagusienak eskema** edo, nahiago baduzu, **kontzeptuzko-mapa** baten bidez jaso. Horiek nola egiten diren gogoratzeko, hurrengo esteka kontsulta dezakezu: <http://www.claseshistoria.com/general/mapaconceptual.htm>



Bilaketak:

Hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Erakunde ofizialetako informazioa izatea, iturri ezagunak, material akademiko edo zientifikoa zeinen jatorria ezagut daitekeen (blog, beste ikasleen apunte edo web orri ezezagun eta horrelakorik saihestuz).
- Kontsultatutako iturriaren **aipua egin, APA** arauak jarraituz.
- **Gai bakoitzeko** gutxienez **bi iturri ezberdin** kontsultatu.

Kide bakoitzak gai baten inguruko informazioa bilatu beharko du.

- (1) Gizarteratze bereizgarria (egiten den bereizketan sakonduz) eta gizarteratze agenteak (genero ikasketari lotuta)
- (2) Autokontzeptuaren eraketaren inguruan; autokontzeptuak pertsonen jokabidean duen eragina; ezarritako ebaluazio irizpideek norbere autokontzeptuak eta jarreran duten eragina
- (3) Eskema kognitiboak, eskemen sorrera, kategorizazioa
- (4) Ondorioen bidezko ikasketa eta eredu bidezko ikasketa;
 - 4.1. Teoria edo ikuspegiaren ideia(k) nagusia(k).
 - 4.2. Teoria horien egileak eta haien ideiarik esanguratsuenak(k).

Sei kidez osatutako taldeetan, irakaslearekin adostu beharko da seigarren kidearen bilaketa

Derrigorrezko irakurketa: azken taldekideak (5.ak) irakurketa bat egingo du:

- (5) **Crawford, Mary (2006). *Transformations & Women and Gender***
Liburu originalak EHUko liburutegiaren bidez eskura daitezke, eta proiektu honetarako erabiliko diren atalak irakasleak erraztuko ditu irakasteko helburuarekin

Oharra: edozein kasutan (irakurketetan zein bilaketan) ideiak jasotzeko eta sintetizatzen unean eskema edo mapa kontzeptual bat sortu, hurrengo egunean ideiak argi izateak gelan egin beharreko lana erraztuko baitu.

Gogoratu irakurri edo bilatutako dokumentuaren **aipu zuzena** jasotzeaz, **APAren 6. edizioaren arauak jarraituz** (arau horien laburpen bat e-gelan eskaintzen zaizue).

Bigarren gela saioa. Informazio ezberdinak lotzen



Estereotipoak eta aurreiritziak berezkoak dira edo ikasiak dira?


Saio honetan **puzzle teknika** erabiliko dugu eta oinarrizko talde moduan MDJko taldeak erabiliko ditugu:

1. Gai bera irakurri edo bilatu duten kideak **“aditu” taldeetan bilduko** zarete, gehienez 5 kidez osatutako taldeak (bi aditu talde sortuko dira gai batzuetan). Adituen taldearen eginbeharra: gaiaren inguruan ideiak nagusienak konpartitu eta gai horretatik nabarmenena zer den ondo identifikatu, gero MDJko taldekideei (irakurketa egin ez dutenei) azaltzeko.
 - a. Taldearen rola banatu: taldearen kide guztien lanaren berri izan behar da, beraz denbora ondo kudeatu eta neurtu (35 min duzue dena egiteko). Izendatu denboraz arduratuko den erantzulea, kide guztiek parte-hartzen dutela ziurtatzen duen arduraduna eta galdera egile bi dena ondo ulertu dela ziurtatuko dutenak
 - b. Ideiak nagusiak komunean jarri eta sintetizatu (txukun).
 - c. Ideiak nagusi horiek kideei argi azaltzeko gai izango zaretela ziurtatu
2. **MDJko talde txikietara itzuli.** Bertan kide bakoitzak banaka irakurri zuen eta aditu taldean argitu dituen bere gaiaren ideia nagusiak azalduko ditu. Ziurtatu beharko da bere taldeko kide guztiak ondo ulertu dutela, **gero azterketa egin beharko dutelako** (50 min guztira). **Kontzeptuzko mapa** egin.
3. Zoriz aukeratutako bi taldeek haien ondorioak azalduko dituzte (ahozko azalpen formal baten bidez).
4. **Talde handiko lana** eta ikasitakoa praktikan jartzeko azterketa prestatu: **komunikabideen azterketa.**
Mintegika komunikabideen arloak banatuko ditugu:
 - a. Telebistako iragarkiak.
 - b. Irratiko abestiak.
 - c. Aldizkariak.
 - d. Bideojokoak.
5. Hurrengo saiorako gelatik at banaka egin beharreko lana zehaztuko da

▪ ***Banaka gelatik at egin beharreko lana***

A) Ikasitakoaren inguruko **azterketa (banakakoa) egin: galderei on-line erantzun e-gelaren bidez**

B) Gelan egin den banaketa jarraituz, **taldekide bakoitzak egokitu zaion komunikabide arlo bateko elementu bat** aztertuko du eta lan hori **idatziz** jasoko du, txukun. Bere azterketan berak irakurri duen iturria kontuan izan ezik, **bere gelakideek landu dituzten iturriak kontuan hartu beharko** ditu baita ere, aipuak eta erreferentziak eginez.



Hirugarren gela saioa. Ikasitakoa eta errealitatearen arteko loturak argitu



Estereotipoak eta aurreiritziak irakasten dira?

Saio honetan lehenengo faseari itxiera emateko txosten formala prestatzen hasiko zarete:

1. **MDJko taldekideak elkaturik**, bakoitzak egin duen bakarkako azterketa azalduko du eta taldekideen ekarpenak jasoko ditu azterketa hori osatzeko eta zuzentzeko.
2. Lehenengo faseari itxiera eman: **egindako azterketa kritikoa txosten formal baten egituraz adierazi**.
3. Hurrengo saiorako gelatik at egin beharreko banakako lana zehaztuko da




Txostena egiteko kontuan hartu beharrekoak.

Gogoratu:

1. Txostenak izan beharreko atalak (gelan zehaztu direnak): *azala, aurkibidea, egungo egoera edo egoeraren aurkezpena, egingo den azterketa-belburuak-, metodologia, emaitzak, ondorioak eta erreferentzia bibliografikoak*
2. Atal bakoitzean zer garatu beharko litzatekeen.
3. Txosten idatziaren **eranskinetan** agertu beharreko elementuak:
 - 3.1. **Prozesuan** sortutako elementu guztiak:
 - Banakako zein taldeetako **produktuak** (gelan egindako sintesi lanak)
 - Gelatik at egindako taldeko bileren **aktak**
 - 3.2. **Taldearen eta banakako ebaluazioa**
 - 3.3. Sortuko duzuen **ikus-entzunekoaren** gidoia edo **zirriborro** idatzia
4. Txostena entregatu aurretik, kontsultatu hori ebaluatzeko erabiliko diren **irizpideak**. Txostena erreparatu eta horiek bete dituzuela ziurtatu (**check-list moduan** erabili).
5. Idatzizko **txostenaren entrega datak**:
 - **Tarteko entrega** urriaren 23an izango da
 - **Amaierako entrega** (zuzenketak eginda) azaroaren 6an izango da.

▪ **Banaka gelatik at egin beharreko lana**

- A) Banaka egindako azterketa gelakideen ekarpenekin osatu
- B) Gela saioan **taldekide bakoitzari egokitu zaion lan berria** (txostena egiteko) aurrera eraman





Txostena ebaluatzeko **gutxieneko irizpideak** ondorengoak izango dira. Txosten idatzia entregatu aurretik, ziurtatu zaitezte zuen lanak kalifikatzeko erabiliko diren irizpideak betetzen dituela:

Txosten idatzia ebaluatzeko gutxieneko irizpideak	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Alde formalak (itxura, zehaztutako atalak, lerroartekoa, puntuazioa... egokiak dira)*			
Euskara maila egokia du: ortografia, egitura eta gramatika*			
Ideiak ondo azalduta eta arrazoituta daude			
Argudioak landu diren iturrietan oinarritzen dira (proiektuan landu diren edukiak agertzen dira)			
Iturrien argudio edo justifikazioa egokia aipu zuzenez laguntzen da (APA arauetara jarraituz)			
Diskurtsoa koherentea da, lotura argiak daude atalen artean eta ez da errepikapenik gertatzen			
Erreferentzia bibliografikoen atala zuzena da eta APA arauetara jarraitzen die			
Entregatu beharreko eranskin guztiak egoki bete dira			

*Irizpide hauek ez betetzeak lana ez gainditzea suposa dezake



Txosten idatzien **ERANSKINETAN** gehitzeko.

BANAKAKO ebaluazioa taldean izandako **norbere jokabidearen** inguruan

Banakako ebaluazioa taldean izandako norbere jokabidearen inguruan	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Taldeak egindako bilera guztietara joan naiz eta garaiz (puntual) heldu naiz			
Gela saio batera edo talde bateko bilerara ezin izan banaiz egon, aldeztu aurretik abisatu dut, nire lana helarazi diet eta ondoren, egindakoagatik edo adostutakoagatik galdetu dut.			
Egokitutako lana ondo (eskatutako baldintza guztiak betez) egin dut			
Egokitutako lana taldeak adostutako datarako egin dut			

Eztabaidetan eta lanen inguruan erabakiak hartzeko momentuan, nire iritzia eman dut (taldean parte-hartze aktiboa izan dut)			
Taldearen lana errazteko esfortzuak egin ditut: norbaitek behar zuenean laguntza eskaini diot, nire lan eta rolak egoki betetzeaz arduratu naiz...			
Beste taldekideak errespetuz tratatu ditut, haien ideiak entzunez eta kontuan hartuz.			
Taldean erabakitako rola bete dut (ondo egiten saiatu eta esfortzatu naiz)			
Zer nabarmenduko nuke nire jardueraz?			
Zer hobetu dezaket taldearen lana errazteko?			



Txosten idatzien **ERANSKINETAN** gehitzeko.

BANAKAKO ebaluazioa **TALDEAREN** (taldekideen) jokabidearen inguruan

Banakako ebaluazioa TALDEKO KIDEEK izandako jokabidearen inguruan	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Guztiak taldeak egindako bilerak guztietara etorri dira eta garaiz (puntual) heldu dira			
Denek gela saio batera edo talde bateko bilerara ezin izan badira etorri, aldeztatik abisatu dute, haien lana beste taldekide bati helaraziz eta ondoren, egindakoagatik edo adostutakoagatik galdetuz			
Taldekide guztiak egokitu zaien lana ondo (eskatutako baldintza guztiak betez) egin dute			
Kide guztiak egokitutako lana taldeak adostutako datarako egin dute			
Eztabaidetan eta lanen inguruan erabakiak hartzeko momentuan, taldekide guztiak haien iritzia eman dute (taldean parte-hartze aktiboa izan dute)			
Kide denek taldearen lana errazteko esfortzua egin dute: norbaitek			

behar zuenean laguntza eskaini dute, haien lan eta rolak egoki betetzeaz arduratu dira...			
Kide guztiek beste taldekideak errespetuz tratatu dituzte, haien ideiak entzunez eta kontuan hartuz			
Guztiak taldean erabaki eta egokitu zaien rola bete dute (ondo egiten saiatu eta esfortzatu dira)			
Iritzi edo ideia kontrajarriak egon direnean, taldekide denek adostasunetara heltzeko esfortzua egin dute			
Taldekide denak zerbaitekin ados ez bazeuden taldean azaltzeko gai izan dira, modu lasai eta errespetuzkoan			
Arazo bat egon denean, taldean komentatu da, taldeko arazo moduan hartuz eta pertsonalizatu gabe			
Zehaztu noiz/zein kasutan ez diren aurreko irizpideak kide guztien kasuetan bete			
Zerbait egin da egoera hori aldatzeko? Ezer egin ez bada, zer proposatuko zenuke? Egoera aldatzeko taldeak kanpoko laguntza beharko lukeela uste duzu?			

Gogoratu ebaluazio hauez gain, **taldeko aktak** eta **prozesuan zehar sortutako tarteko lanak** (gela saioen aurretik kideek egindako lanek zein gela saioetan sortutako sintesiak edo eskemak edo kontzeptuzko mapak) **ERANSKINETAN** jaso beharko direla.

Laugarren gela saioa. Egoeraren azterketa kritikoa



Zer esan daiteke berdintasun eta orekari buruz egungo errealitatearen egoera komunikabideetan islatzen dena ikusita?

Saio honetan lehenengo faseari itxiera emateko txosten formalaren atalak eta edukiak landuko dituzue:

1. **MDJko taldekideek:**
 - a. Taldeko kideek txostenaren atalak elkarri, zuzendu eta osatuko dituzue
 - b. Txostenaren egitura osoa osatzen hasiko zarete
2. Hemendik aurrera bigarren fasean egin beharrekoa lana (jada gelatik at izango dena) zehaztuko da




Gogoratu: hemendik aurrera **lehenengo faseari itxiera emateko TXOSTEN IDATZIA** gelatik at bukatu beharko duzue



- **Taldeka** gelatik at egin beharreko lana
Txosten idatzia bukatu eta **urriaren 23an** tarteko entrega egin

Bestalde, proiektuaren **bigarren faseari** hasiera emateko **LEHENENGO MINTEGI saioa erabiliko da,** beraz, horri begira **banakako lana** egin beharko duzue **gelatik at:**



- **Banaka,** gelatik at egin beharreko lana
Bakoitzari egokitu zaion **irakurketa** (e-gelan eskuratu beharrekoa) egitea eta **sintetizatzea** lehenengo mintegi saiorako

Txosten idatzia entregatu aurretik, kontuan izan kalifikatzeko erabiliko diren irizpideak:

Txosten idatzia ebaluatzeko gutxieneko irizpideak	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Alde formalak (itxura, zehaztutako atalak, lerroartekoa, puntuazioa... egokiak dira)*			
Euskara maila egokia du: ortografia, egitura eta gramatika*			
Ideiak ondo azalduta eta arrazoituta daude			
Argudioak landu diren iturrietan oinarritzen dira (proiektuan landu diren edukiak agertzen dira)			
Iturrien argudio edo justifikazioa egokia aipu zuzenez laguntzen da (APA arauari jarraituz)			

Diskurtsoa koherentea da, lotura argiak daude atalen artean eta ez da errepikapenik gertatzen			
Erreferentzia bibliografikoen atala zuzena da eta APA arauetara jarraitzen die			
Entregatu beharreko eranskin guztiak egoki bete dira			

**Irizpide hauek ez betetzeak lana ez gaituztea suposa dezake*

3. 2. PROIEKTUAREN BIGARREN FASEA: Esku-hartzea. Kontzientziaztea eta kideak heztea



PRIMERAN!!
ZORIONAK!!
Lehenengo fasea eginda!!

Egungo egoera zein den aztertu eta egun darraien estereotipo, aurreiritzi eta diskriminazio egoerak zergatik ikasi eta mantentzen diren ulertu duzue.

Orain, **azalpen eta ulermenetik pausu bat haratago** joaten saiatuko gara. Hezitzaileak izango zaretenez, hezteko baliagarriak diren proposamenak sortzeko unea da. **Esku-hartzerako** erabilgarriak izan daitezkeen proposamenak egiteko **garaia da**, beraz, proiektuaren bigarren faseari hasiera emango diogu!

Bigarren fase honetan unibertsitateko kideak hezteko baliagarriak izan daitezkeen bi elementu sortu edo prestatu beharko dituzue.

Lehenik eta behin, elementu edo bi eginbehar horiek zeintzuk diren gogoratuko ditugu.

3.2.1. Txostenaren Ahozko Aurkezpena BIGARREN MINTEGI Saiorako

Zuen lehenengo lana komunikabideen azterketan jasotako emaitzak **ahoz aurkeztea** izango da, kideei aurkitutakoaren berri emateko eta egoera zein den ohartarazteko.



Horretarako talde bakoitzak aztertutako elementu guztietatik lau aukeratuko ditu **BIGARREN MINTEGI saioan** kideei aurkezteko.

Aurkezpenak 20 minutukoak izango dira eta horiek ebaluatzeko, ondorengo irizpideak erabiliko dira:

Taldeko irizpideak

Ahozko aurkezpenarako gutxieneko irizpideak	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Aurkezpena aurreikusitako denborara egokitu da			
Gaiari sarrera egin zaio (lantzearen beharra justifikatuz)			
Ideiak argi azaldu dira, eta justifikatuta egon dira			
Taldeko kide guztiek azalpenetan hartu dute parte, erritmo egokia mantenduz (geldiunerik gabe)			
Aurkezpenaren informazioa ikus-entzunezko baliabide atsegin baten bidez lagundu da (ppt, prezi...)			

Erabilitako baliabidea ondo egituratuta egon da eta ez du akatsik izan (ortografia, gramatika...)			
Ikus-entzuleen arreta mantentzea lortu dute			
Taldekide guztiak adi eta jarrera egokia mantendu dute aurkezpen osoan zehar			

Banaka ikasle bakoitzari feedback emateko

Ahozko aurkezpenarako gutxieneko irizpideak	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Ikus-entzuleei begiratu die			
Zutik hitz egin du, espazioan mugituz			
Eskuak ikusgai izan ditu eta hitz egin bitartean mugitu ditu (esandakoarekin bat etorriz)			
Bere taldekideen azalpenei adi egon da eta behar izan denean, horiei erreferentzia egin die			
Hitzen errepikapena (“muletillen” erabilera) saihestu du			
Euskara zuzena eta erregistro formala erabiltzen saiatu da			

3.2.2. Ikus-entzunezko hezitzailea eta bere azalpen-justifikazioa (diptiko batean) HIRUGARREN MINTEGI asterako

Gaur egun zuen adineko zein beste adineko gazteen presentzia sare-sozialetan gero eta handiagoa da, eta gero eta handiagoa da ere bertan aurkitu daitezkeen ikus-entzunezkoen kontsumoa zein birbidaltzea.

Komunikabideen azterketaren **ahozko aurkezpenaren bidez aurrez-aurreko esku-hartzea egin dezakezue**, eta aukera hori luzatuko zaizue Bilboko Irakasle Eskolan urtero antolatzen diren **Martxoaren 8a** aldarrikatze **jardueretan**.

Baina kontzientziatzeko esku-hartze hori mugatua egongo da jardunaldi horietara etortzen diren ikusleei.

Zergatik, ez, orduan, zuen eragin hezitzailea sare-sozialen bidez zabaltzea ikusle kopurua handitzeko?

Asmo horrekin estereotipo, aurreiritzi eta diskriminazio egoerak salatze eta horien inguruko hausnarketa kritikoa sortzeko ikus-entzunezkoa sortuko duzue.

Helburu hori bete dezakeen produktu edo ikus-entzunezkoa lortzeko, orain arte ikasi duzuen erabil dezakezue (ikaskuntza-sozialaren ideiak edo eskema-kognitiboak berreskuratuz) baina horrez gain, komenigarria da orain arte beste profesionalek egin dutena aztertzea.

Horretarako LEHENENGO MINTEGIRAKO banaka eta gelatik at Igartuak immigrazio gaia landuz argitaratutako hainbat dokumentu irakurri dituzue, aurreiritziak eta diskriminazioa gutxitzeko saiakera erabilgarriak ezagutzeko.

Ikasitako guztia kontuan harturik, taldeka:

1. **Ikus-entzunezkoak sortuko dituzue.**

Laburrak, 5-10 minutukoak

Gogoeta kritikora bultzatzen dutenak

Orain arte ikasitakoaz baliaitzen direnak (horretan oinarritzen direnak)



2. **Diptikoa:**

Orrialde biko azalpen labur eta argia

- *Ikus-entzunezkoa labur deskribatuko du*
- *Ikus-entzunezkoak hausnarketa pizteko erabiltzen dituen estrategiak argituko ditu*



Beraz, ikus-entzunezko eta bere diptikoa sortzeko **lehenengo mintegi saioan ohar eta aholku batzuk landuko ditugu** (Igartua-rena; e-gelan eskainitakoa).

Horretarako ezinbestekoa izango da **LEHENENGO MINTEGI saiorako** banaka **norberari egokitu zaion irakurketa** irakurrita eta sintetizatuta (laburtuta) eramatea.

Jarraian LEHENENGO MINTEGI Saioan egingo dena azalduko da.



Bosgarren gela saioa: LEHENENGO MINTEGIA.
Ikus-entzunezko hezitzailea



Zer egin daiteke berdintasun eta oreka ikus-entzunezkoen bidez sustatzeko?

Saio honetan ikus-entzunezkoa egiteko aholkuak landuko dituzue:

1. **Gai bera irakurri duten** beste taldeko kideekin bilduko zarete **aditu taldeak** sortzeko.

Taldearen kide guztien lanaren berri izan behar da, beraz denbora ondo kudeatu eta neurtu beharko duzue (lan osoa egiteko 45 min izango dituzue)..

- a. Taldearen rolak banatu eta denbora ondo kudeatu:
 - Ordezkarria
 - Idazkarria
 - Denboraz arduratuko dena
 - Kide guztien ideiak entzuteaz arduratuko dena
 - Galdera egile bi kide guztien parte-hartzea ziurtatuko dutenak eta dena ondo ulertu dela ziurtatuko dutenak
- b. Idei nagusiak komunean jarri eta sintetizatu (txukun).
- c. Idei nagusi horiek kideei argi azaltzeko 10 minutuko aurkezpena prestatu

2. Aditu talde bakoitzak bere aurkezpena egingo du (30 min).

3. Talde handiko eztabaida egingo da lanari itxiera emateko

4. Hemendik aurrera bigarren fasean egin beharrekoa lana gelatik at izango da, beraz, lanerako plana sortu



Ikus-entzunezkoa KALIFIKATZEKO erabiliko diren irizpideak:

Ikus-entzunezkoa ebaluatzeko gutxieneko irizpideak	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Ez da estereotipo sexistarik agertzen (agertuko balitu, horiek gogor kritikatzeko edo hausnarketa sortzeko erabiliko lituzke)			
Diskriminazio egoeren biktimarekiko enpatia edo identifikazioa pizten saiatzen da			
Bazterketa edo desoreka egoeren ondorioak agertzen ditu, kritika eginez edo salatuz			
Esaldi klabe bat (lelo bat) agertzen du			
Egin daitekeena (jokabide egokiaren eredua) eskaintzen			

du			
Eskatutako denborara egokitzen da			
Gogoratzeko modukoa da (emozio eudaimonikoak* pizten ditu, hedonikoak piztu beharrean)			

*Ikusi Igartuaren Ikerketa Txostena (Igartua & Frutos, 2014; 23.orr)



Diptikoa prestatzeko, kontuan izan **KALIFIKATZEKO** erabiliko diren irizpideak:

Diptikoa ebaluatzeko gutxieneko irizpideak	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Argi azaltzen ditu ikus-entzunezkoaren helburua			
Ikus-entzunezkoaren inguruko laburpen edo deskripzio bat eskaintzen du			
Proiektuaren bigarren fasean landutako kontzeptuak islatzen ditu: bideoan erabili diren estrategiak argitzen ditu			
Aurkezpen atsegina du eta irakurtzeko erraza da			
Informazioa eta irudiak ondo egituratuta daude eta ez du akatsik (ortografia, gramatika...)			

Bestalde, ikus-entzunezko eta bideoaren ahozko **aurkezpena** prestatzeko momentuan, kontuan izan:

Taldean

Ikus entzuneko aurkezteko gutxieneko irizpideak	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Ikus-entzunezkoari sarrera egin zaio, horren beharra edo justifikazioa azalduz			
Ikus-entzunezkoaren helburuak, horren laburpena, eta erabilitako baliabideak (estrategiak) azaldu eta arrazoitu dira			
Ahozko aurkezpena antolatuta egon da			
Aurkezpenaren informazioa ikus-entzunezko baliabide atsegin baten bidez lagundu da (ppt, prezi...)			
Erabilitako baliabidea ondo egituratuta egon da eta ez du akatsik izan (ortografia, gramatika...)			

Taldekide guztiak azalpenetan hartu dute parte			
Taldekide guztiak adi egon dira eta jarrera egokia mantendu dute aurkezpen osoan zehar			

Banaka

Ahozko aurkezpenarako gutxieneko irizpideak	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Ikus-entzuleei begiratu die			
Zutik hitz egin du, espazioan mugituz			
Eskuak ikusgai izan ditu eta hitz egin bitartean mugitu ditu (esandakoarekin bat etorriz)			
Bere taldekideen azalpenei adi egon da eta behar izan denean, horiei erreferentzia egin die			
Hitzen errepikapena (“muletillen” erabilera) saihestu du			
Euskara zuzena eta erregistro formala erabiltzen saiatu da			

Seigarren gela saioa: BIGARREN MINTEGIA.
Komunikabideen azterketaren AHOZKO AURKEZPENA



Egungo egoeraz kontziente gara? Zertan sozializatuak eta heziak gara?

Saio honetan taldeka, **komunikabideen azterketaren ahozko aurkezpena** egingo duzue (**gehienez 20** minutukoa)

Irakasleari egin beharreko entrega:

- Aurkezpena laguntzeko prestatutako baliabidea(k)

Komunikabideen azterketa egin ondoren, horren **ahozko** aurkezpena prestatzeko, kontuan izan **kalifikatzeko** erabiliko diren irizpideak:

Taldeko irizpideak

Ahozko aurkezpenarako gutxieneko irizpideak	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Aurkezpena aurreikusitako denborara egokitu da			
Gaiari sarrera egin zaio (lantzearen beharra justifikatuz)			
Ideiak argi azaldu dira, eta justifikatuta egon dira			
Taldekode guztiek azalpenetan hartu dute parte, erritmo egokia mantenduz (geldiunerik gabe)			
Aurkezpenaren informazioa ikus-entzunezko baliabide atsegin baten bidez lagundu da (ppt, prezi...)			
Erabilitako baliabidea ondo egituratuta egon da eta ez du akatsik izan (ortografia, gramatika...)			
Ikus-entzuleen arreta mantentzea lortu dute			
Taldekode guztiak adi eta jarrera egokia mantendu dute aurkezpen osoan zehar			

Banaka ikasle bakoitzari feedback emateko

Ahozko aurkezpenarako gutxieneko irizpideak	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Ikus-entzuleei begiratu die			
Zutik hitz egin du, espazioan mugituz			
Eskuak ikusgai izan ditu eta hitz egin bitartean mugitu ditu (esandakoarekin bat etorritik)			
Bere taldekideen azalpenei adi egon da eta behar izan denean, horiei erreferentzia egin die			
Hitzen errepikapena (“muletillen” erabilera) saihestu du			
Euskara zuzena eta erregistro formala erabiltzen saiatu da			

**Zazpigarren gela saioa: HIRUGARREN MINTEGIA.
Komunikabideen azterketaren AHOZKO AURKEZPENA**



Emakumeak pertsonak gara ere?

Saio honetan taldeka, ikus-entzunezkoen aurkezpena eta justifikazioa egingo duzue (gehienez 20 minutukoa)

Diptikoen entrega egingo duzue (ikusle talde bakoitzeko bat)



Irakasleari egin beharreko entrega:

- Ikus-entzunezkoa* (ziurtatu kalifikatzeko erabiliko diren **irizpideak** betetzen dituela, 18 orr)
- Diptikoa digitalki* (ziurtatu kalifikatzeko erabiliko diren **irizpideak** betetzen dituela, 19 orr)
- **Autoebaluazioa** eta **kideen** banakako ebaluazioa (txosten idatzirako erabili den txantilo berdina erabiliz)
- Prozesuan sortutako **aktak**



Ikus entzunezkoaren **aurkezpena** prestatzeko, kontuan izan hurrengo irizpideak:

Ikus-entzunezko irizpideak	aurkezpenaren gutxieneko	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Ikus-entzunezkoari sarrera egin zaio, horren beharra edo justifikazioa azalduz				
Ikus-entzunezkoaren helburuak, horren laburpena, eta erabilitako baliabideak (estrategiak) azaldu eta arrazoitu dira				
Ahozko aurkezpena antolatuta egon da				
Aurkezpenaren informazioa ikus-entzunezko baliabide atsegin baten bidez lagundu da (ppt, prezi...)				
Erabilitako baliabidea ondo egituratuta egon da eta ez du akatsik izan (ortografia, gramatika...)				
Taldekide guztiek azalpenetan hartu dute parte				
Taldekide guztiak adi egon dira eta jarrera egokia mantendu dute aurkezpen osoan zehar				

Banaka ikasle bakoitzari feedback emateko

Ahozko aurkezpenarako gutxieneko irizpideak	Ez egokia	Egokia	Oso ona
Ikus-entzuleei begiratu die			
Zutik hitz egin du, espazioan mugituz			
Eskuak ikusgai izan ditu eta hitz egin bitartean mugitu ditu (esandakoarekin bat etorritik)			
Bere taldekideen azalpenei adi egon da eta behar izan denean, horiei erreferentzia egin die			
Hitzen errepikapena (“muletillen” erabilera) saihestu du			
Euskara zuzena eta erregistro formala erabiltzen saiatu da			

3. EMATEKOAK, DATAK eta KALIFIKAZIOA

Proiektuak irakasgaiaren %30a hartuko du, hau da, **3 puntu** balio izango ditu.

Kalifikatuko diren entregatzekoak hiru izango dira, hirurak **taldekoak**, eta **ondorengo datetan** entregatuko dira:

Ematekoak	Datak	Kalifikazioa
Komunikabideen azterketaren txosten idatzia - Tarteko entrega (zuzenketak jaso ahal izateko) - Behin betiko entrega	Urriaren 23a	0.9 puntu
	Azaroaren 6a	
Komunikabideen azterketaren ahozko aurkezpena	Bigarren Mintegi astean (Azaroak 2-6)	0.8 puntu
Ikus-entzunezkoa eta bere diptikoa	Hirugarren Mintegi astean (Azaroak 23-27)	0.9+0.4 = 1.3 puntu
Guztira:		3 puntu

ZORIONAK!!
PROIEKTUAREN AMAIERARA HELDU
ZARETE!!



Bidean ikasi eta bizitakoa aberasgarria suertatu izana espero da!
Hurrengora arte!!

ERANSKINAK

TALDEKO FITXA

Ikasturtea:	Taldearen argazkia
Taldearen izena:	
Taldekideen izen-abizenak eta kontaktatzeko erak:	
Taldekide (1)	Taldekide (2)
Taldekide (3)	Taldekide (4)
Taldekide (5)	Taldekide (6)
Ondoren, hainbat erabaki hartu beharko dituzue taldearen funtzionamendu egokirako. Horiek betetzea bereziki garrantzitsua izango da taldeak gelatik at lan egin behar duenean eta taldeko ematekoak prestatzen dituenean.	
Taldearen helburuak :	
Taldearen arauak :	

Taldearen arauak beteko ez balira hartuko diren neurriak:
Bilerak burutzeko erabiliko diren ordutegia(k) eta lekua(k) :
Taldekieen artean komunikatzeko erabiliko diren erak:
<p>Gelatik at egin beharreko lanetan kideek hartuko dituzten rolak. Taldeak erabaki dezake ea rol bat kide bat baino gehiagok burutuko duten, rol-en errotazioa egingo den edo hemen aipatutakoaz gain rol berriak ezarriko dituen. Edonola ere, kide guztiek bete beharko dute rol bat:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Koordinatzailea: bilerak deituko ditu (ikaskideei noiz egingo diren gogoratuko die), zein lan egin behar den gogoratuko du; bilerak aurrera joateaz arduratuko da: denbora neurtuko du, eztabaida birbideratuko du gaiaz aldatzen denean, kide guztiek haien ekarpena egin dezatela erraztuko du... - Idazkaria: gelatik at egiten diren bileren akta jasoko du (horretarako eranskinetan eskaintzen den eredu jarraitu dezake). Jasotako akta kide guztiei helaraziko die. - Lanen arduraduna: kide guztiek haien lana egin dutela ziurtatzeaz arduratuko da eta entregatu aurretik lanak gutxieneko irizpideak betetzen dituela ziurtatuko da. - Ikasketen arduraduna: irakasleak egindako zuzenketak eta gomendioak lanean kontuan hartzen direla ziurtatzeaz arduratuko da, eta taldeko kide guztiek zuzenketa horien zergatia ulertzen dutela ziurtatuko du.
Taldekieen sinadurak eta data

TALDEKO AKTA (gelatik at egiten den lana jasotzeko)

Data:	Hasiera (ordua):	Bilera egindako lekua:
Taldearen izena:	Bukaera (ordua):	
Etorritako kideak:		Haien falta justifikatu dutenak:
Rol-en banaketa: - Koordinatzailea: - Idazkaria: - Lanen arduraduna: - Ikasketen arduraduna: -		
Egindakoa:		
Adostutakoa:		
Hurrengo bilerarako egin beharrekoak		
Zer	Nor	Noizko
Bileran egindako lanaren balorazioa:		
Ondo baloratu dena	Hobetu behar dena (eta nola)	